

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Kobratzeko moduan jartzea jarduera ekonomikoen gaineko zergaren zergadunen errolda. 2019ko ekitaldia

Egin da jarduera ekonomikoen gaineko zergaren zergadunen errolda. Jendaurrean dago 2019ko uztailaren 15eko ALHAOn, 81. zk., argitaratu zenetik. Zergadunen erroldak jendaurrean jartzeak likidazioen jakinarazpen bateratua egitea du helburu, hala egin behar dela xedatzen baitu Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98. artikulua 3. paragrafoan.

2019ko abenduaren 19tik otsailaren 19ra arteko egun baliodunetan (biak barne) prest egongo dira, borondatezko epean ordaintzeko, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2020ko ordainagiriak.

I. Ordaintzeko epeak

A) Borondatezko epea: 2019ko abenduaren 19tik 2020ko otsailaren 19ra.

B) Betearazte aldia: 2020ko otsailaren 20tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko lekua eta modua

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenez ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenez, udalean eskatu ahal izango dute helbideratzea, edota diru sarrera egin Banco Popular edo Kutxabank finantza erakundeetan udalak dauzkan dirubilketa kontuetan.

Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da Alkatetzan, ordaintzeko borondatezko epean, edo hilabeteko epean, hura amaitu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Lapuebla de Labarca, 2019ko abenduaren 3a

Alkatea

MARÍA TERESA CÓRDOBA FERNÁNDEZ